

AZALPEN-ARGIBIDEAK

I. GORTE NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEETAN BOZKATZEKO BOTO-PROZEDURA BEREZIA OSATZEN DUTEN AGIRIAK

Gorte Nagusietarako Hauteskundeetan bozkatzeko boto-prozedura berezi honek honako edukia du:

1. Azalpen-argibide hauek, braillez idatzita.
2. Bozkatzeko gutun-azal arautua, braille sistemarik gabe, Senaturako hauteskundeetan botoa emateko.
3. Bi aldeetatik trokelatutako txantilo bat. Horren barruan, Senaturako Hauteskundeetan erabiltzeko boto-orria estandarra dago.
4. Senaturako hautagaien zerrenda, braillez idatzitakoa.
5. "Diputatuen Kongresurako Hauteskundeak" dioen gutun-azal handia, braillez eta tintaz idatzitakoa. Gutun-azal handi horren barruan honako agiriak daude:
 - Dagokion hauteskunde-barrutian, Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan parte hartuko duten hautagai-zerrenda bakoitzeko gutun-azal txiki bana (orri laurden neurrikoa). Gutun-azal txiki horietako bakoitzak etiketa bat du, braillez eta tintaz, hautagai-zerrenda baten sigla eta izenarekin. Gutun-azalaren bakoitzaren barruan, boto-orria egongo da (estandarra, braille sistemarik gabe), gutun-azalaren kanpoko aldean adierazitako hautagai-zerrendari dagokiona.
 - Bozkatzeko gutun-azal arautua, braille sistemarik gabe, Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan botoa emateko.

II. BOTOA EMATEKO ARGIBIDEAK.

A. Botoa prestatu.

1. Boto-prozedura berezi hori osatzen duten agiriak zuri eman ondoren, agiri horiek pribatutasun osoz erabiltzeko, hauteskunde-mahaletako kideei laguntza eska diezaiekezu mahaitik ahalik eta hurbilen dagoen gaitutako hauteslekuaren eremura joateko. Aipatutako agiriak hauteslekutik kanpora ere eraman ditzakezu eta geroago hauteskura itzuli zure botoa emateko.

2. Senaturako Hauteskundeetarako, braillez egindako txantiloia lau kietan zure boto-aukera markatu boligrafoz edo arkatzez. Txantiloia horren barruan Senaturako boto-orria dago.

Txantiloia horretan, hautagai-zerrenda bakoitzak zenbaki bat dauka. Zenbaki hori braillez idatzitako hautagai-zerrendetan bilatu eta horrela jakingo dituzu bai

hautagai-zerrendaren izena eta hautagai-zerrenda horri dagozkion Senaturako hautagaien izen-abizenak ere. Zure botoa eman nahi diezun hautagaiak aukeratu eta gero, boto-orri estandarra txantiloitik atera eta "Senaturako Hauteskundeak" dioen bozkatzeko gutun-azalean sartu.

3. Diputatuen Kongresurako Hauteskundeen kasuan, ireki "Diputatuen Kongresurako Hauteskundeak" dioen gutun-azal handia, braillez idatzitakoa, eta barruan dauden gutun-azal txikien artean bat aukeratu: zuk eman nahi diozun hautagai-zerrendari dagokion boto-orria duela braillez adierazten duena, hain zuzen ere. Boto-orri hori hartu eta Diputatuen Kongresurako Hauteskundeei dagokien bozkatzeko gutun-azalean sartu.

B. Bozketa.

Jarraian, Hauteskunde-mahaira joan eta Mahaiburuari honako agiriren bat aurkeztu beharko diozu zure burua identifikatzeko:

- Nortasun Agiri Nazionala (NAN). Tramitatzen ari den NANaren ordezkagiriak ez du balio, hauteslearen argazkirik agertzen ez delako.
- Pasaporte (argazkiarekin).

Agiri horiek iraungita egon arren onartu egingo dira, baina jatorrizkoak izan behar dira. Ez da fotokopiarik onartuko.

C. Gainerako agiriak.

Bozkatu ondoren, eskuratu dizkieten agiri guztiak biltzea ez zaio ahaztu behar boto-emaleari, emandako botoa isilpen gordetze aldera.